



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.alava.net

MAHATSAREN HELTZEAREN JARRAIPENA ARABAKO TXAKOLINEAN

Jarraipen hauen helburua da informazioa eskaini ahal izatea mahastizaintza sektoreari prozesu horren bilakaerari buruz, erabakigarria izan baitaiteke etorkizuneko ardoen azken kalitatean. Horrela upeltegiei eta mahastizainei lagundu nahi zaie finkatzen zein den momenturik onena mahatsa biltzeko eta bere kalitatea.

Emaitzak interpretatzeko orduan, garrantzitsua da kontuan izatea hainbat faktore eta ohar:

- ✓ Laginak Hondarribi Zuri barietatea ekoizten ari diren lurzatietan hartu dira. Kontua da lagin modura hartutako mahatsondoak eskualdean eta bertako zona desberdinetan adierazgarriak izan daitezela.
- ✓ Azterlanaren helburua da lortutako informazioa eta datuak erreferente izan daitezen prozesuaren bilakaeran. Hala ere, eskualdeko mahatsondo gehienak sakabanatu egotearen eta orografia desberdina edukitzearen ondorioz, ezin da lortutako datuen estrapolazio zuzenik egin, elkarren artean hurbil dauden arren. Garrantzi handia dauka jarraipen zehatzekin segitzeak mahatsondo eta lurzati bakoitzean.
- ✓ Kontuan hartu behar da mahatsaren heltzea baldintzatu ahal duten faktoreak asko eta oso desberdinak izan daitezkeela, hala nola, lurzatiaren kokapena, mahatsondoaren adina, lurraren ezaugarriak, mahats karga, estres hidrikoa, landarediaren osasuna, bertan egiten diren kultura praktikak.



ARABAKO TXAKOLINAREN HELTZEA: 2005EKO IRAILAK 8

AURKINTZA	ALTITUD EA (m)	Espero den alkohol GRADUA	AZIDOTASU N TARTARIKO A GUZTIRA g/litro	pH	AZIDO MALIKOA (g/l)
ARTOMAÑA (Arrastaria ibarra – Amurrio)	310	7°95	14,54	2,75	6,0
AGUIRREALDAY (Okondo)	205	8°90	14,42	2,82	6,6
LEZAMA (Amurrio)	320	7°75	18,34	2,79	10,0
BELDIO (Laudio)	340	8°65	17,25	2,77	8,0
HONDARRIBI ZURI BATEZ BESTEKOA		8°31	16,14	2,78	7,65

Iruzkinak:

- *Heltzea 10 bat egun aurreratu da, batez besteko urte batekin alderatuta. Udako tenperatura altuek aurreratu zuten zenbait mahastitan kolore aldaketa eta heltzen hastea.*
- *Hondarribi Zuri muztioaren glukometria **8°9 eta 7°75** gradu bitartekoa da laginak hartutako hainbat lurzatitan. Mahasti gehienen egoera begetatiboa oso ona da, zenbait lurzatitako kasu zehatzetan gorrina eta botritis sintomaren bat antzeman bada ere.*
- *Mordoak, oro har, oso osasun egoera onean daude.*